DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Eraikinen Mantentzea
Mantenimiento de Edificios

Urdaneta, 13 - Tel. 943481069 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Esp/ Exp.: 2021/112

ESKOLA-ERAIKINETAN, EROSKETA BIDEZ KARPAK HORNITZEA ETA INSTALATZEA ARAUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. - KONTRATUAREN XEDEA:

Baldintza Teknikoen Agiri (BTA) honen helburua honakoa da: bi eskola-eraikinetako patioetan jartzeko estaldura karpak hornitzea eta instalatzea xedetzat duen kontratuaren ezaugarri teknikoak arautzea. Karpak erosketa bidez hornituko dira.

Lizitatzaileek sorta batean edo bietan aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, hala nola 1 eta 2 sortei dagokien eskaintza integratzailea. Agiri honetan arauturikoa bi sortei eta eskaintza integratzaileari aplikagarria zaie.

2.- EZARPENAREN KOKAPENA:

Aitor Konkorrenea eta Zuhaizti Aldakonea ikastetxeetan jarri beharko dira karpak.

Karpak horretarako izendatutako Udaleko teknikariek adierazitako leku zehatzean instalatu beharko dira. Karpak eskolako patioetan duten kokapenari buruzko plano orientagarriak erantsi dira (Agiri honen I. eta II. eranskinak). Nolanahi ere, behin betiko kokapena bertan birplanteatuko da instalatu aurretik.

3. - KARPEN EZAUGARRIAK:

Karpak osatzen dituzten elementu guztiak berriak izango dira, aurrez beste inolako erabilerarik izan ez dutenak.

- Karpek ondorengo neurriak izan beharko dituzte:

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS A REGIR PARA EL SUMINISTRO E INSTALACIÓN, EN REGIMEN DE COMPRA, DE CARPAS EN EDIFICIOS DOCENTES

1. - OBJETO DEL CONTRATO:

Constituye el objeto del presente Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT) la regulación de las caracterIsticas técnicas a regir en el contrato del suministro e instalación de carpas de cobertura en los patios de dos edificios docentes, en regimen de compra.

Los licitadores podrán presentar sus ofertas a uno o a los dos lotes u oferta integradora que integre el lote 1 y el lote 2. Lo regulado en el presente pliego es aplicable a ambos lotes, así como a la oferta integradora.

2. - UBICACIÓN DE LA IMPLANTACION:

Las carpas se deberán instalar en los centros escolares Aitor Konkorrenea y Zuhaizti Aldakonea.

Las carpas deberán ser instaladas en el lugar exacto que indiquen los/las técnicos/as del Ayuntamiento designados para ello. Se adjuntan planos orientativos de la ubicación de las carpas en los patios escolares (Anexos I y II del presente pliego). En todo caso, se replanteará in situ la ubicación definitiva antes de su instalación.

3. - CARACTERISTICAS DE LAS CARPAS:

Todos los elementos que componen las carpas serán nuevos, sin que hayan tenido ningún uso anterior.

- Las carpas deberán tener las siguientes dimensiones:

- Aitor Konkorrenea LHI: 20x20 m-ko karpa.
- Zuhaizti Aldakonea LHI: 23x30 m-ko karpa.

- Alboko gutxieneko altuera 3 m-koa izango da.

- UNE-EN 13782 araudia bete beharko dute "Aldi baterako estrukturak. Karpak. Segurtasuna".

- Karpek metalezko egitura izango dute. Zutabeak eta lotura-piezak aluminioz edo altzairuz eginak izango dira, dagokien babes tratamenduarekin eta UNE-EN 1090 arauak ezarritako zehaztapenak bete beharko dituzte. Gainera, egitura fabrikatzeko erabilitako materialek, horietako material bakoitzari dagokion araudi espezifikoa bete beharko dute.

- Zutabeek edo euskarriek inpaktuen aurkako babes-elementuak izango dituzte, 2 metroko altueraraino, ikastetxeetako erabiltzaileentzako segurtasun-neurri gisa.

- Lurrean ainguratuta instalatu beharko dira.

- Haizearen aurkako erresistentzia ziurtatua 100 km/h-koa izango da.

- Txarrantxatzea 2 metrotik gorako altueran kokatutako profil horizontalen bidez egingo da.

- Karpek estalkia baino ez dute izango, alboko itxiturarik gabe, eta bi isurkikoak izango dira.

- Sabaia estaltzeko olanak iragazgaitzak izango dira, poliesterrezko ehunean eginak, M-2 ziurtatutako suarekiko erreakzioarekin, eta izpi ultramoreen, lizunaren eta gazitasunaren aurka tratatuak. Olanak zuriak izan beharko dira.

Oro har, karpak osatzen dituzten material guztiak erabat homologatuak egongo dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- CEP Aitor Konkorrenea: carpa de 20x20 m.
- CEP Zuhaizti Aldakonea: carpa de 23x30 m.

- La altura mínima en el lateral será de 3 m.

- Se deberá cumplir la normativa UNE-EN 13782 "Estructuras temporales. Carpas. Seguridad".

- Las carpas tendrán estructura metálica. Tanto los pilares como las piezas de unión estarán fabricadas en aluminio o acero con tratamiento de protección y deberán cumplir las especificaciones marcadas por la norma UNE-EN 1090. Además, los materiales utilizados para la fabricación de la estructura, deberán cumplir con la normativa específica correspondiente a cada material.

- Los pilares o soportes dispondrán de elementos de protección contra-impacto hasta una altura de 2m, como medida de seguridad para los usuarios de los centros.

- Se deberán instalar mediante anclaje a tierra.

- La resistencia al viento certificada será de 100 Km/h.

- El arriostramiento se realizará mediante perfiles horizontales colocados por encima de 2 metros de altura.

- Las carpas tendrán solo cobertura, sin cierres laterales, y serán a dos aguas.

- Las lonas de cubrimiento de techo serán impermeables, en tejido de poliéster, con reacción al fuego certificada M-2, tratadas contra rayos ultravioleta, moho y salinidad. Deberán ser de color blanco.

De forma general, todos los materiales que componen las carpas estarán completamente homologados, de acuerdo con la normativa vigente.
Durante la ejecución del contrato, los/las

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Kontratua gauzatzen den bitartean, udaleko teknikariek beharrezkotzat jotzen dituzten egiaztagiriak eskatu ahal izango dituzte, eskaturiko UNE-ak aurkeztea barne.

4.- MUNTAIA ZERBITZUA:

4.1. - Betebehar orokorrak:

Karpak eskola-orduetatik kanpo hornitu eta muntatuko dira, muntaketarako beharrezko materialek eta lanek ikastetxeetako erabiltzaileentzat arriskurik sortu ez dezaten. Kontratua behar bezala burutzeko lan guztiak enpresa esleipendunak hartuko ditu bere gain.

Muntaiaz gain, garraio-lan guztiak enpresa esleipendunak burutuko ditu eta garraio-zerbitzuan sortzen diren gastu guztiak ordainduko ditu.

Langile guztiak, baita lekualdatzeko eta muntatzeko makinak ere, enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

4.2 Giza-baliabideak:

Enpresa esleipendunak karpak behar bezala muntatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, teknikari eskudun batek egindakoa, 17/2019 Dekretuko 96. artikuluaren arabera (17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena).

Horrez gain, enpresa esleipendunak Udalarekin harremana izango duen pertsona solaskide bat izendatu beharko du. Aurreko paragrafoan aipaturiko teknikaria edota beste langile bat izan ahalko da. Udalak pertsona solaskidearekin emailez edota telefonoz izan ahalko du harremana.

4.3. Ballabide materialak:

técnicos/as del ayuntamiento podrán solicitar la documentación justificativa del cumplimiento de todo ello que estime necesario, incluyendo la presentación de las UNE-s exigidas.

4.- SERVICIO DE MONTAJE:

4.1. - Obligaciones generales:

El suministro y montaje de las carpas se deberá realizar fuera del horario escolar, de tal forma que los materiales y operaciones de montaje no supongan riesgo para los/las usuarios/as de los centros escolares. Todos los trabajos necesarios para su correcta realización serán asumidos por la empresa adjudicataria.

Además del montaje, la empresa adjudicataria llevará a cabo todos los trabajos de transporte, asumiendo todos los gastos que se generen en el servicio de transporte.

Todo el personal, así como la maquinaria de traslado y montaje, correrán a cargo de la empresa adjudicataria.

4.2 Medios personales:

La empresa adjudicataria deberá presentar un certificado del correcto montaje de las carpas emitido por una persona técnica competente, según el artículo 96 del "Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas".

Asimismo, la empresa adjudicataria deberá designar a una persona para que sea la persona interlocutora con el Ayuntamiento. Podrá ser la persona técnica del apartado anterior u otro trabajador o trabajadora. El Ayuntamiento podrá contactar con dicha persona interlocura mediante email y/o teléfono.

4.3. Medios materiales:

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Eraikinen Mantentzea
Mantenimiento de Edificios

Urdaneta, 13 - Tel. 943481069 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Enpresa esleipendunak hornitutako materialen fabrikatzaileek emandako ziurtagiriak izan beharko ditu, material horien sendotasuna eta segurtasuna egiaztatzeko. Ziurtagiri horiek aurreko 4.2. atalean aipatutako muntaketa egokiaren ziurtagirian kontuan hartuko dira.

Muntaiaren erantzukizuna eta hornitutako materialen egokitasunaren erantzukizuna enpresa esleipendunari dagokio.

4.4. Laneko arriskuen prebentzioa:

Muntatzean, hirugarrenei istripurik ez gertatzeko, enpresa esleipenduna arduratuko da lan-esparrua segurtasunez mugatzeko behar diren neurri guztiak hartzeaz.

Oro har, lan-segurtasunari eta -osasunari buruzko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira kontratua egiteko, bai eta hornidura-kontratua behar bezala gauzatzeko erabili behar diren makinen segurtasunari buruzkoak ere.

Halaber, enpresa esleipendunak beharrezko prebentzio-baliabideak izango ditu, eta lan-arriskuen, lan-legediaren eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen guztiak beteko ditu.

Kontratua sustatzen duen unitateak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztagiriak eskatu ahal izango ditu, kontratua gauzatzen den bitartean.

La empresa adjudicataria deberá contar con los certificados emitidos por los fabricantes de los materiales suministrados que acrediten su solidez y su seguridad. Tales certificados se considerarán dentro del certificado del correcto montaje mencionado en el apartado 4.2 anterior.

La responsabilidad sobre el montaje y sobre la validez de los materiales suministrados recaerá sobre la empresa adjudicataria.

4.4. Prevención de riesgos laborales:

Durante el montaje, con el fin de evitar accidentes a terceras personas, la empresa adjudicataria será responsable de adoptar cuantas medidas sean necesarias para acotar en seguridad el recinto de trabajo.

De forma general, para la realización del contrato se deberán cumplir todos los requisitos establecidos en la normativa de seguridad y salud laboral, así como de seguridad relativa a la maquinaria que sea necesario utilizar para la correcta ejecución del contrato de suministro.

Asimismo, la empresa adjudicataria contará con los necesarios recursos preventivos y cumplirá todas las disposiciones vigentes en materia de riesgos laborales, legislación laboral y seguridad social.

Durante la ejecución del contrato, los/las técnicos/as del ayuntamiento podrán solicitar la documentación justificativa del cumplimiento de todo ello que estime necesario.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 11n

ESKOLA ERAIKINAK MANTENTZEKO ATALA

Iztua.: Irene Irastorza

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN


Eraikinen Mantentzea
Mantenimiento de Edificios

Urdaneta, 13 - Tel. 943481069 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

I ERANSKINA. Aitor Konkorrenea HLHI-ko patioan karparen kokapena. / ANEXO I. Emplazamiento de carpa en patio de CEIP Aitor Konkorrenea.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2022 OTS. FEB. 15

Batzord
El/La secre

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Eraikinen Mantentzea
Mantenimiento de Edificios

Urdaneta, 13 - Tel. 943481069 - www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

II ERANSKINA. Zuhaizti Aldakonea LHI-ko patioan karparen kokapena. / ANEXO I. Emplazamiento de carpa en patio de CEP Zuhaizti Aldakonea.



